

## **2024/25 GABONETAKO BALKOI, LEIHO ETA FATXADEN II. LEHIAKETA**

### **LEHIAKETAREN OINARRIAK:**

#### **LEHENENGOA.**

Debako herritar guztiek parte hartu ahal izango dute lehiaketan.

Bizilekua herrian duten pertsonak. Parte-hartzaileek askatasun osoa izango dute balkoiak, leihoak eta fatxadak apaintzeko teknika eta estiloari dagokienez, betiere dekorazioak oinezkoentzat inolako arriskurik ez badakar.

#### **BIGARRENA.**

Izen-ematea doakoa da eta 2024ko abenduaren 2etik 23ra izango da. Eskabideak bi bidetatik onartuko dira:

1. Online bidez, inprimaki hau betez: (google forms)
2. Turismo Bulegora joanez (10:00etatik 14: 00etara) edo 943192452 telefonora deituz.

#### **Turismo bulegoan izena ematen baduzu, honako hau adierazi beharko duzu:**

1. Izen-abizenak
2. Inskribatu nahi duzun etxearen helbidea
3. Harremanetarako telefonoa + helbide elektronikoa.
4. turismoa@deba.eus helbidera bidali beharko duzu egindako dekorazioaren argazki bat edo batzuk.

#### **HIRUGARRENA.**

Balkoien, fatxaden eta leihoen dekorazioak lotura zuzena izan behar du Gabonetako motiboekin. Apainduta eta ikusgai egon beharko dute, gehienez, 2025ko urtarrilaren 6ra arte.

#### **LAUGARRENA.**

Erakusketa-aldian dekorazioa eta/edo argiztapena osatzen duten materialek akatsen bat izanez gero, ordeztu edo kendu egin beharko dira, eta dekorazioa jarri duen partikularraren erantzukizuna izango da.

## **BOSGARRENA.**

2024/2025 GABONETAKO BALKOI, LEIHO ETA FATXADEN II. LEHIAKETA honetako saridunak hautatzeko epaimahaiak honako puntu hauek baloratuko ditu funtsean:

- Diseinua eta originaltasuna
- Birziklatutako elementuak erabiltzea.
- Herri-tradizioa.

Epaimahaia 2025eko urtarrilaren 3an bilduko da udaletxean, parte hartze aldian zehar fatxadak, balkoiak eta leihoak bisitatu ondoren eta jasotako argazkiak uneoro gogoan izan ondoren. Une horretan erabakiko dira irabazleak, eta 2025eko urtarrilaren 5ean emango da erabakiaren berri.

## **SEIGARRENA.**

Epaimahaiak 200 €-ko lehen saria, 150 €-ko bigarren saria, 100 €-ko hirugarren saria eta 50 €-ko laugarren saria emango ditu.

Lehiaketa egin ahal izateko, gutxienez 5 balkoi, fatxada edo leihok parte hartu beharko dute.

## **ZAZPIGARRENA.**

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da eta tokiko komunikabideetan argitaratuko da. Gainera, irabazleei telefonoz jakinaraziko zaie.

Sariak emateko ekitaldia 2025eko urtarrilaren 5ean egingo da, eta Errege Magoek emango dituzte.

## **ZORTZIGARRENA.**

Izena emate hutsak esan nahi du parte-hartzaileek 2024/25 GABONETAKO BALKOI, LEIHO ETA FATXADEN II. LEHIAKETAKO oinarri hauek eta epaimahaiaren erabakia onartzen dituztela.

## **BEDERATZIGARRENA.**

Lehengo urteko irabazleak parte hartzeko aukera izango du, betiere aurreko urteko berdina aurkezten ez badu.